



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2015/12/16

## **Batzar Nagusiek eskaria egin dabe Aldundiak Getxoko Udala "aholkatu" eta La Galeako itsas-argiaren eta gotorlekuaren zaharbarritze lanen finantzaketan lagundu daian**

Gaur goizean Bilbon alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako batzordeak EAJ/PNV-k aurkeztutako zuzenketa-eske bat onartu dau, Aldundiari eskaria egiteko Getxoko Udalgaz hitzartu beharreko akordioak hitzartu daizan, La Galeako Gotorlekua berreskuratzeko "aholkularitza tekniko eta finantzaketan laguntza posiblea" emoteko. PP-k aurkeztu dauen eta jeltzaleen zuzenketa-eskea jaso dauen arauz besteko proposamenak talde bi horreen eta PSE-EE-ren aldeko eretxia jaso dau. EH Bildu kontra agertu da eta Podemos Bizkaia abstenidu egin da.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira esatean La Galeako Itsas-argiak eta Gotorlekuak osotzen daben moltso monumentala "oso puntu garrantzitsua" dala turismoaren eta kulturaren ikuspegitik, eta beharrezkoa dala herri administrazioek bertan parte hartzea. Eusko Jaurlaritzak moltsoari buruzko Kultur Ondasun adierazpena onartu aurretik, Arturo Aldecoak (PP), Bizkaiko Golkoko "lehenengo" itsas-argia barne hartzen dauen gun e hori "balioan jartearen" alde agertu da, eta horri, "ondo kontserbauta" dagoan XVIII. mendeko gotorleku militarra gehitu behar jako.

PP-ren jatorrizko ekimenak eskaria egiten eban, Foru Aldundiak bere gain hartu eian, hitzarmen baten sinaduraren bitartez, La Galeako Itsas-argiaren eta Gotorlekuaren "kudeaketea eta kontserbazinoa". Ganerako taldeen eretxiz, hori Aldundiaren eskumenen eremutik kanpo dago. Hori dala eta, Euzko Abertzaleak taldeak (EAJ-PNV), Aldecoak atoa onartu dauen zuzenketa-eskea aurkeztu dau, leku horren zaharbarritzea bultzatzeaz gain, "udalaren autonomia" errespetau daiten, leku horren jaubea Getxoko Udala dalako.

Horri jagokonez, Mikel Bagan jeltzalearen eretxiz bidezkoa da joan dan zemendiaren 25ean Udaleko osoko bilkurak berak hartu eban erabagia errespetetea. Bertan arkitektura moltsoa berreskuratzeko planari "lehentasuna emotea" eta horretarako "beharrezko kreditua edo kredituak bideratzea" erabagi zan, Foru Aldundia moltso horren azken jomugari buruzko erabagian sartzea saihestuz.

Moltso arkitektonikoa berreskuratu behar izateagaz ados egon arren, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek gotorlekuak etorkizunean izango dituan erabilerei buruzko zalantzak erakutsi ditue. Hori dala eta, talde lila abstenidu egin da eta EH Bilduk kontrako botoa emon dau. Podemoseko José Angel Elgezabalek, erakundeakaz eta gizarteko eragileakaz "batera egindako eta adostutako" proiektua eskatu dau, eraikinei emongo jaken erabilerea be azalduz; EH Bilduko Meritxell Elgezabali jagokonez, gotorlekuaren erabilera publikoa "bermatzeko" eskaria egin dau, hori ez dauelako "hitzez hitz" topetan onartutako proposamenean. Alderdi hori Udalean landu zan mozino haretan be baztertu zan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## AURRERA JARRAITZEN DAU ESKAIOLAZ EGINDA DAGOEN “EL PALANKARI” ESKULTURAREN BILAKETEA

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako diputatu Lorea Bilbao batzordera joan da, PP-k eskatuta, Higinio Basterra eskulturagilearen "El Palankari" (1912) izeneko estatua aurkitzeko bere sailak egindakoaren barri emoteko. Jaubea Bizkaiko Foru Aldundia dan eskultorea Gernikako Batzarretxean egon zan “1964 eta 1979 artean”, Arturo Aldecoak esan dauenez.

Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, bere saileko “hiru teknikari” egin beharreko azterketak ari dira egiten hiru metro inguruko altuera dauen eskaiolazko eskultura hori aurkitzeko. Garai haretan Batzarretxearen atzekaldeko eskultura nagusia izan zan. Dana dala, Bizkaiko Jaurreriak (1970), Foru Aldundiko Ogasuneko sailak (1989 eta 1990 artean) eta Aldundiko Kultura Sailak (2012an hasitakoa eta oraindiko amaitu barik dagoana), egin dituen azkenengo hiru inbentarioek, eta hainbat dokumentazinok eta Gernikako eta Abellanedako Batzarretxeetako, Euskal Museoko, Berreginen Museoko eta Arte Eder Museoko eta Foru Artxibategiko dokumentazinoa eta lekuak eta garai haretako egunkariak eta aldizkariak aztertu izanak ez dabe argitu Galdameseko meatzari bat irudikatzen dauen irudia non egongo ete dan.

Bilbaok adierazo dauenez, bere sailak ikertzen jarraituko dau, “kontakizun koherentea” aurkitzeko, azkenengo erreferentzia dokumentala 1963koa dalako, eta 1970ean pieza hori Gernikan egoala esaten dauelako. Aldundiko arduradunak esan dau joan dan mendearen hogeiko hamarkadan, beste leku batzuen artean Sevillako eta Bartzelonako erakusketa unibersaletan egon zan eskulturaren desagertpena 70eko hamarkadaren bukaeran gertau eitekeala, Xabier Sáenz de Gorbearen argitalpen batean adierazoten danez, azaldu dau Bilbaok.

Aldecoak eskaria egin deutso Aldundiari, demokrazia indarrean sartu eta denpora gitxira, Gernikako Batzarretxea egokitzeko beharrak egin ahal izateko artelanaren leku aldaketan ustez parte hartu eben enpresen dokumentazinoa aztertu daian. “Badagoz eskulturaren existentzia aitatzten daben Batzar Nagusietako 1979ko aktak”. “Ez dot itxaropenik galtzen, biltegiren batean egongo ete dan”, esan dau batzordekide popularrak, diputatu andreari, bere sailak gai hori salatu daian eskaria egin aurretik “ez daiten enkanteren batean agertu”. Bilbaok konpromisoa hartu dau artelana Aldundiaren ondarearen inbentarioan sartzeko, “berme” moduan, etorkizunean agertzen bada, eta bilaketeagaz jarraitzeko, baina ez dau baztertu azterlana “deuseztatuta” egotearen aukerea.

Aldundiko arduradunak batzarretako taldeak nasaitu gura izan ditu bere sailak dituan zainketa zerbitzuari jagokonez. 1986an Aldundiaren kontserbazino eta zaharbarritze unidatea sortu zanetik, “dana inbentariauta dago eta segurtasun neurriak guztiz eraginkorrak dira”, esan dau Bilbaok, eta eskaria egin dau, kasu hori ez daiten erabili Bizkaiko ondarea kontserbetako metodoei buruzko “zalantzak sortzeko”. Metodo horrek ez datoz bat 70eko Bizkaiko gizarteak kulturaren aurrean eukan sensibilitadeagaz.

Bitxikeria moduan, diputatu andreak adierazo dau Gerrikabeitiaren, eskulturagilearen modelo izan zan meatzariaren, senideek eskultura erosi gura izan ebela 1960an, “3.000 pezetarengatik”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
16/12/2015

## **Juntas Generales pide que la Diputación "asesore" al ayuntamiento de Getxo y "cofinancie" la reforma del Faro y Fuerte de la Galea**

La comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia reunida esta mañana en Bilbao ha aprobado una enmienda de EAJ/PNV que pide a la Diputación alcanzar los acuerdos necesarios con el ayuntamiento de Getxo para el “asesoramiento técnico y la posible cofinanciación” de la recuperación del Fuerte de la Galea. La proposición no de norma del PP, enmendada por los jeltzales, ha contado con el apoyo de estos dos grupos y del PSE-EE, la negativa de EH Bildu, y la abstención de Podemos Bizkaia.

Todos los grupos junteros han coincidido en señalar que el conjunto monumental formado por el Faro y el Fuerte de la Galea constituye un punto “muy importante” de interés turístico y cultural que requiere de una actuación por parte de las administraciones públicas. Mientras el Gobierno vasco resuelve la declaración de Bien Cultural sobre el conjunto, Arturo Aldecoa (PP) ha abogado por impulsar la “puesta en valor” de este espacio que cuenta con el “primer” faro del Cantábrico, al que hay que sumar una fortaleza militar del siglo XVIII “bien conservada”.

La iniciativa original del PP pedía que la Diputación se hiciera cargo, mediante la firma de un convenio, de la “gestión y conservación” del Faro y Fuerte de la Galea, algo que el resto de grupos ha considerado fuera del ámbito competencial foral. De ahí la enmienda del grupo juntero Nacionalistas Vascos (PNV), aceptada desde un principio por Aldecoa, que, además de servir de impulso a la rehabilitación, respetará la “autonomía municipal”, ya que su propietario es el ayuntamiento de Getxo.

En este sentido, el jeltzale Mikel Bagan ha creído oportuno respetar la decisión del propio pleno municipal que el pasado 25 de noviembre acordó “priorizar” un plan de recuperación del conjunto arquitectónico y “habilitar el crédito o créditos necesarios” para ello, evitando que la Diputación se injiriera en la decisión sobre su destino final.

Pese a estar de acuerdo con la recuperación del conjunto arquitectónico, Podemos Bizkaia y EH Bildu han mostrado sus dudas sobre el uso público futuro de dicha fortificación, algo que ha empujado a la formación violeta a abstenerse y a EH Bildu a votar en contra. José Angel Elgezabal, de Podemos, ha pedido un proyecto “conjunto y acordado” con instituciones y agentes sociales en donde se explique el uso que se le va a dar a las edificaciones; mientras que Meritxell Elgezabal, de EH Bildu, ha solicitado que “se garantice” el uso público del lugar, algo que no encuentra “de forma literal” en la proposición aprobada; un aspecto que fue rechazado también -según ella- en aquella moción municipal.

### **SIGUE LA BÚSQUEDA DE LA ESCULTURA DE ESCAYOLA “EL PALANKARI”**

Por otra parte, la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, acudía a la comisión para explicar, a petición del PP, las gestiones realizadas por su departamento para localizar la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

escultura denominada "el Palankari" (1912), del escultor Higinio Basterra, obra de la Diputación Foral depositada en la Casa de Juntas de Gernika "entre 1964 y 1979", según Arturo Aldecoa.

La responsable foral ha informado de que "tres técnicos" de su departamento están realizando las averiguaciones necesarias para dar con esta escultura de escayola, de unos tres metros de altura, que en aquella época estuvo presidiendo la trasera de la Casa de Juntas de Gernika. De todas formas, la comprobación de los tres últimos inventarios -realizados por el Señorío de Bizkaia (1970), por el departamento de Hacienda de la Diputación foral (entre 1989 y 1990) y por el departamento foral de Cultura (iniciado en 2012 y aún inconcluso)-, y la revisión de distinta documentación y dependencias de las Casas de Juntas de Gernika y Abellaneda, de los museos Vasco, Reproducciones y Bellas Artes, y del Archivo Foral, además de la prensa de la época, no ha ofrecido pistas certeras sobre el paradero de la figura representativa de un minero de Galdames.

Bilbao ha señalado que su departamento seguirá investigando para encontrar un "relato coherente", ya que la última referencia documental data de 1963 y ubica la pieza en Gernika en el año 1970. La responsable foral ha informado de que la desaparición de la escultura, que viajó en los años veinte a las exposiciones universales de Sevilla y Barcelona, entre otros lugares, pudo producirse a finales de los 70, como así aparece reflejado en una publicación de Xabier Sáenz de Gorbea, ha explicado Bilbao.

Aldecoa ha pedido a la Diputación que revise la documentación de las empresas que participaron supuestamente en el traslado de la obra, recién restaurada la democracia, para hacer las obras de acondicionamiento del hem ciclo vizcaíno. "Hay actas de Juntas Generales de 1979 que mencionan su existencia". "No pierdo la esperanza de que esté en algún almacén", ha dicho el apoderado popular, antes de pedir a la diputada que su departamento denuncie el asunto "no vaya a ser que aparezca en alguna subasta". Bilbao se ha comprometido a incluir la obra en el inventario patrimonial de la Diputación como "garantía" por si apareciera en el futuro y a seguir con la búsqueda, aunque tampoco descarta que la obra haya sido "destruida".

La responsable foral ha querido lanzar un mensaje de tranquilidad a los grupos junteros sobre las labores de protección que lleva a cabo su departamento. Desde que se creó la unidad de conservación y restauración de la Diputación en 1986, "todo está inventariado y las medidas de seguridad son efectivas", ha dicho Bilbao, quien ha pedido que este caso no sirva para "generar dudas" sobre los métodos actuales de conservación del patrimonio vizcaíno, que no casan con la sensibilidad cultural de la sociedad vizcaína de la década de los 70.

Como curiosidad, la diputada ha contado que la escultura quiso ser comprada por "3.000 pesetas", en 1960, por familiares de Gerrikabeitia, el minero que sirvió de modelo al escultor.